

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2007ko azaroaren 16a / 230. zenbakia / 18. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** Azaroaren 6ko zozketa 05
- **IRITZIA** Txurrunuski aisialdi taldea 16
- **KIROLA** Lasterketa herrikoiak 08
- **MOILA BAZTERRETIK** Jon Agirresarobe 17
- **AIAKO BERRI** Josu Larrarte *Mister Gipuzkoa* 10
- **HERRITARRA** Arantxa Satrustegi eta Imanol Amantegi 21



## Herri kirolak lekua egin du Orion

Sanikolasetako festa programaren barruan herri kirolak tartetxo izaten du beti. Aurten, oriotarrez osatutako taldea ikusiko dugu.

**AUTOAK AUKERA ONEAN**

**AIA ORIO**

Telefonoa: 943 13 04 38

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAS



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Gure Txoko**  
Anjapa Kalea

**Kinkladenda - Uma arropa**

**argine.**

www.lasoneL.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

**2,5eko DESKONTUA FAMILIA UGAKIEN TXARTELAREKIN**

*adartekia*

**ANTILLA**

*jatelekua*

Alorri Kalea, 2 - TEL. 943 83 20 04

**ARISTERRAZU**  
jatekua

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**AMILIBIA**  
ENTZIELAK, S. L.

larri portuaren proiektu eta instalazioak

guztutako lekuetarako arazo-ontzek

Obstakogaztu auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**uranga**  
autozorbizua



**Aliprox**

Eusko Godariak, 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**ACTIVA** **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

**Juan Albizu**

Arriola, 4 - Telefonoa: 943 83 72 47  
10809 ORIO

**ARKAITZ**  
Taberna

Pintxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1      Tel: 943 83 16 57

**ARIDATZA** modus

Eusko Godariak, 7      Tel: 943 83 10 88      ORIO

**ALTXERRI**  
Kanta eraberrina

Asteburuan, eguerdi eta guretan,  
menu bereziak

**943 83 07 62**

**Baraka** taberna

Aita Lertundici 23

Gosariak, pintxoak,  
kaxelitatek,  
plater konbinaluak.

gaiterak,  
musika eta kopaki

**BEREZI**  
moda eta osagarriak

edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa

Arrantza kalea, 3  
Tel: 943 89 05 29

- Lois - Caroché - Guess? - Pepe Arellano - Jackpot - Diesel - Cotton Field -

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugkorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabbarri

**Erredakzio burua**

Patxi Uranga

**Erredakzio taldea**Lore Berasaluze, Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Ana Iturain,  
Eneritz Odriozola eta  
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Patxi Uranga

**Testuen zuzenketa**Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Maite Eizagirre, Ibon Gastañazpi,  
Beñat Solaberrieta eta Ixabel  
Unsain**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Josu Lizarralde eta  
Itziar Aiestaran (Orio)  
Irene Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
irritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Ortzaikako errepublikan

**MARTINTXO****1**

Sanmartinak ditugu  
Ortzaika aldi,  
festa ederra egunez  
parranda gauian,  
herrin geratu partez  
taberna batian,  
erriyo ertzetik  
goazen pasian.

**2**

Izan degu kirola  
ta nahiko bersoa,  
apaiza gai jartzaile  
bai martxosoa,  
inoiz ikusi al da  
holako kasoa,  
hau beste mundu bat da...  
egia osoa!

**3**

Asteburu honekin  
dator bukaera,  
badago zer ikusi  
ez galdu aukera,  
oilasko biltzea edo  
estropada bera,  
hurrengo urtean berriz  
agertuko gera.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com)  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Gazte Asanbladak herritarrei

Gazte Eguna ospatu berri dela, Gazte Asanbladak, balorazio bilera egin ondoren, herritar guztiei zuzendutako idatzi hau plazaratzea erabaki du:

Hasteko, Gazte Eguna antolatzen lagundu diguten guztiei eskerrik beroenak eman nahi genizkieke, laguntza hori gabe ezinezkoa izango baitzitzaigun egunaren antolaketa aurrera eramatea. Aldi berean, egun osoan ekin-tzetan parte hartu zuten herritar guztiak eskertu beharrean gaude, gure festaren ardatz diren parte-hartze ekintzeta jende ugari ibili baitzen.

Bestalde, gauza bat argitu beharrean ikusi gara, herrian zabaldu den xurrunurruari erantzuteko. Onartu beharra dago igandean plazak zuen itxura ez zela egokiena; baina, hala ere, guk ez dugu Orioko Gazte Asanblada jotzen

erruduntzat. Gertakizuna Udalaren erantzukizuna dela uste dugu, Udalak bere esku dituen baliabideak erabili izan balitu —herrian egiten diren gainerako jaietan ez du oztoporik izaten kaleak txukun uzteko— ez baitzen arazorik sortuko: gu geu izan ginen igande arratsaldean plazara joan eta lurra garbitu genuenak horretarako beharrezko material egokirik gabe. Gainera, aipatu behar dugu, jaia behar den bezala ospatzeko Udalar eskatu genizkion gauza urrietatik, diru gastua zuen bakarra ukatu zigutela, komun kimiko bat, horrela beren pasibitatea, higieñarekiko interes eza eta gazteekiko duen solidaritate falta agerian utziz. Azkenik, herritar guztiak animatu nahi genituzke San Nikolas jaietarako antolatuko ditugun ekintzetan parte hartzera, eta plazan izango diren txosnatan buelta bat ematera, argi utzi nahi baitugu, gaztetxea lortzeko bidea jorra-

tzen jarraituko dugula, horretarako Udalarekin elkarlanean jarraitzeko borondatea berretsiz, behingoz gauzak ongi egin daitezzen.

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

## Zorionak gazteei!

Batetik, Gazte Egunagatik eta, bestetik, Txurrunuskikoen Ametsa gaztelekuko proposamenagatik zorionak eman nahi dizkiet herriko gazteei. Harrigarria da daukazuen interes, iniziatiba eta lan egiteko gogoia. Garbi erakutsi duzue sinisten duzuen horretan ederki asko antolatzen zaretela eta arazo, traba eta zailtasun guztien gainetik, txukun asko egiten duzuela lan.

Herriarentzat izugarriko aberastasuna zarete eta animoak ematen dizkizuet horrela jarraitzeko.

AINA

## Txurrunuski Gaztelekuan!

Ezagutzen gaituztelako, ezagutzen ditugulako, gure errealitate berean bizi direlako, orain arte aisialdian musutruk gutaz kezkatu direlako, lagunak ditugulako, gazteak izan eta gazteekin parte hartzen dutelako, nola lan egiten duten gustatzen zaigulako eta maite ditugulako... Txurrunuski nahi dugu Orioko Gaztelekuan.

Ez dugu gure errealitatearen berri ez duten kanpotarrik nahi.

JONE URANGA,

ARATZ MADARIAGA,

ASIER SARASOLA

ETA BESTE 26 SINADURA

(ORIOKO HERRI IKASTOLAKO

IKASLEAK)



# NEGOZIO PROPIOA IZAN NAHI?

## ORIOKO BULEGO BERRIRAKO ORDEZKARI KOMERTZIAL BILA GABILTZA

Bidaliguzu curriculuma [evican@mapfre.com](mailto:evican@mapfre.com) helbidera edo deitu 607 85 75 21ra eta egin Ernestoren galdera.

### ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria tel: 943 89 40 29  
finka administratzailea faxa: 943 83 54 98  
gestoria [itsasadarra@itsasadarra.com](mailto:itsasadarra@itsasadarra.com)

Ibai Ondo, 4 behea ORIO



Bisagren Industria Teknikoa, S.A.

Era guztietako bisagrak  
Kazofetan gordetako bisagrak  
Kristalezko ateen bisagrak  
Bisagra automatikoak, etab.

Avoguren Industrialdea - Santago auzoa  
201604 Aita (Gipuzkoa)  
Tel. 943 83 05 08 29 Orrio - Telefax: 943 13 38 62

2009KO UDA PARTERAKO ETXEAK PREST IZATEA AURREIKUSI DUTE OBREN ARDURADUNEK

# Azaroaren 6an banatu ziren hondartza inguruko etxeak

**Azaroaren 6an zozketatu zituzten babestutako 36 eta tasatutako 39 etxeak.**

Karelako harmailak jendez lepo zeudela, 18:30ean hasi zen zozketa. Alkateak guztiei zorte ona opa ondoren, izenak ateratzen hasi ziren Udaleko idazkari Jon Karrera eta Maria Inmaculada Adanez notarioa, Mainer Lopetegi udal bulego teknikoko administraria eta udaleko aholkulari Ibai Lertxundi lagun zituztela.

Zortea zer den: gehienek, batere ez eta zenbaitek bikoitza izan zuten. Izan ere, babestutako etxea tokatu zitzairen lau lagun izenak tasatue-nean berriz ere egokitu ziren (\*), eta bietako zein hartu erabakitzeko moduan izan ziren. Ondorengo lerroetan dituzue ateratako izen guztiak.

## BABESTUTAKO ETXEAK

Aitor Aristeta Maioz, Miren Illarramendi Fernandez, Garbiñe Manterola Agirrezabalaga, Miguel Sanz Sacristan, Xabier Iribar Esnal, Francisco Duran Gonzalez, Iñaki Gastañazpi Esnal, Juan Jose Idigoras Lanberri, Arturo Garcia Santos\*, M. Karmen Zuazola-zigorraga Juaristi, Xabin Sarasua Aranguren, Joseba Andoni Carretero Alunda, Sergio Intxausti Beñaran, Jeanette Moreno Gonzalez, Josu Galdos Kazabon, Juan Luis Goikoetxea Garate\*, Aitor Sarasua Etxeberria, Joana Solaberrieta Etxeberria, Miren Salsamendi Goñi, Antonia Carrera Uranga, Migel Mari Goikoetxea Eizagirre, Ibon Gaztañazpi Zaldua, Rikardo Uzkudun Eizmendi, Jone Iparraguirre Aristegieta, Franzisko Karrera Uranga, Josu Aldakur Martin\*, Ramon Solaberrieta Etxeberria, Imanol arostegi



Poza nagusi norberaren izena entzun zutenen artean. Koadrila honetan, hiruzpalau lagunek entzun zuten berea.

KARKARA

Carrera, Ane Castaño Rodrigo, Igor Blanco Lakunza, Miren Iñarra Alberdi, Marije Azkue Aldabalde treku, Miriam Ibarbia Manzidor, Nikolas Baylin Zaldua\*, Jose Luis Agote Ortega eta Jose M. Herranz Iruretagoiena. Erreserban: Teodoro Urkizu Mitxelena, Mertxe Curiel Oliden, Eneritz Erkizia Zabala, Maitane Barba Urdangarin, Josu Blanco Lakunza, Kamal Bourass Jahjah, Joxantonio Jaka Aldakur, Amaia Olariaga Arruti, Ainara Castro Larrañaga, Lurdes Esnal Idarreta, Iñigo Romero Aizpurua, Josune Alkorta Alkorta, Juan Alcalde Arruti, Migel Angel Miralles Merketegi eta Eneritz Odriozola Irastorza.

## TASATUTAKOAK

Ander Zinkunegi Aparicio,

Hassan Tiar El Emrani, Bizente Larrañaga Sarria, Kimetz Uranga Elustondo, Lurdes Esnal Idarreta, Agustin Gozategi Odriozola, Igor Laskibar Zumeta, Jose Manuel Elizondo Sarasua, Iban Intxauspe Arregi, M. Eugenia Gomez Otsagabia, Jose Bizente Miera Garcia, Jose Antonio Iglesias Botana, Dabid Lobo Jimenez, Josu Aldakur Martin, Jose Inazio Larrañaga Ostolaza, Imanol Peña Arratibel, Migel Angel Miralles Merketegi, Asier Garmendia Manzidor, Arantzazu Alonso Zendoia, Juan Luis Goikoetxea Garate, Aitor Jaka Aldakur, Aitzol Manterola Pagadizabal, Josu Solaberrieta Albizu, Ibai Kapertxipi Peñagarikano, Luis M. Gazpio Lertxundi, Luis M. Sarasua Salsamendi, Arantza Azkue Iturriotz, Nikolas Bay-

lin Zaldua, Xabier Santamaria Exposito, Arturo Garcia Santos, Ibai Esoain Arruti, Mari Karmen Solaberrieta Etxeberria, Zigor Esoain Arruti, Gabriel Gutierrez Leiza, Elisa Manterola Esnal, Mustapha Tiar El Emrani, Aitor Martikorena Jauregi, Juan Karlos Avila Becerra eta Juan Alcalde Arruti. Erreserban: Miren Illarramendi Fernandez, Aimar Galarraga Ibaguren, Iñigo Fernandez Diaz de Mendibil, Xabier Arruti Agirre, Miren Iñarra Alberdi, Miren Salsamendi Goñi, Idoia Arruti Manterola, Gogor Lertxundi Belasko, Joseba Azkue Iturrioz, Jose Luis Castro Miranda, Santi Manterola Otaegi, Maria Antonia Carrera Uranga, Izaskun Manterola Arruti, Maria Pilar Elizondo Etxaniz eta Josu Blanco Lakunza.

LEHIAKETARA AURKEZTU AHAL IZATEKO BESTE AUKERARIK EZ DUTE IZAN

# Enpresa bihurtu behar izan du Txurrumuski taldeak

**Txurrumuski taldeak Udalaren jokabidearen eta beren egoeraren berri emateko bilera antolatu zuen hilaren 5ean.**

Azaroaren 5ean Txurrumuski aisialdi taldeak Ametsa gaztelekuaren inguruan bizitakoaz informatzeko bilera irekia antolatu zuen. Kultur etxeko liburutegia txiki geratu zen.

## TXURRUMUSKI ENPRESA

Antolatzailerek adierazi zuten, kalean entzundako zurrumurruek eraman zuten 2006ko irailean Txurrumuski gaztelekuaren berri galdetzeraz Udalera. Eraikina egiten ari ziren arren, Udalak gaztelekuan nork zer egingo zuen ez zekitela erantzun omen zieten. Sei hilabetera, Udalaren proposamenaren berri izan zutelaren gehitu zuten: *Udalaren asmoa lehiaketa publikoa aurkeztu eta Ametsa enpresa pribatu baten eskuetan uztea zela jakin genuen. Gu, berriz, herriko baliabideak erabiltzearen aldekoak gara.*

Aurreko legealdiaren amaieran, gaia oraingorako uztea onartu zen. Legealdia hasita, ordea, proposamena onartu zen bilerarako gonbitik jaso ez izana salatuz Txurrumuskik. Lehiaketa publikoa egitea erabakienez, irtenbide bakarra Txurrumuski enpresa pribatu bihurtzea zela gaineratu zuten.

Noemi Ostolaza zinego-



Liburutegia txiki geratu zen Txurrumuskik deitutako bileran.

KARKARA

## 2 enpresa aurkeztu dira lehiaketa publikora: Jokaitza eta Txurrumuski. Erabakia hilaren bukaerarako hartzea espero da

tziaren hitzetan, berriz, iaz, herriko eragileek eta Udalak gazteleku nola kudeatu aztertzeke bilerak egin zituzten: *Bertan egindako ekarpenak*

*lehiaketa publikoko oinarrietan jaso ziren. Herriarekiko gertutasuna eta harremanak baloratuko dira bertan eta Txurrumuskik alderako izanango ditu horiek.*

## BI ENPRESA LEHIAN

Azaroaren 8an amaitu zen proiektuak aurkezteko epea. 2 enpresek eman dute izena: Jokaitzak eta Txurrumuskik.

Proposamenak aztertuta, kudeaketa noren esku utzi hilaren bukaerarako erabakita izatea espero du Udalak.

## LABUR

### MERKATARITZA *Poltsa dendaz denda kanpaina*

Eskualdeko Udal Elkarteak *Poltsa dendaz denda* kanpaina jarri du abian plastikozko poltsen erabilera murrizteko helburuarekin. Azaroaren 8an ekin zioten dendetan telazko poltsak banatzeari. Egindako erosketak bakoitzagatik txartel bana emango zaie erosleei, 2008ko otsailaren 1ean egingo den zozketarako. Gainera, poltsak berreraileteko aukera ere izango da, erosketak etxean utzi ondoren, dendan itzuli ahal izango baitira.

## UDALA

### Zinegotzi berria

EB-Aralarreko Oier Sarobek zinegotzi kargua utzi zuen urriaren 30eko udalbatzarrean, lana eta udal jarduna uztartzeko zailtasunak argudiatuta. Bere lekua Deban zinegotzi izandako Iñaki Garcia ondarrutarrak hartuko du, herriko zerrendan zeuden gainontzeko hautetsiekin uko egin baitiote zinegotzi izateari.

Bestalde, batzar berean, PSE-EEko Jesus Rodriguezentzat 25. mailari dagokion liberazio herena onartu zuten. Aldeko eta kontrako bosna boto zenbatuta, alkateak kalitatezko botoa erabili zuen erabakia onartzeko. EAko zinegotzi bakarrak ez zuten bozketan parte hartu, berandu iritsi zelako.

**Dorronoro Denda**  
1961etik zure ondoan  
**AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN**  
Tel 943 83 09 37

**Pinturak ELKAR**  
pintura eta paperatze lanak zoru leunketa  
Abendaño Industrialdia  
943 83 08 45 / 919 60 23 05  
ZARALTZ

**ertza**  
Profesionalen eskuetan  
Mozak, lantzen, txerriak  
Aldi berean...  
Hamabostero produktuen  
promozio berriak,  
ZALOTZ!

IZOTZ TALDEAREKIN ERROMERIA ETA BERTSO SAIOA IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE

# Txanpa betean datozkigu Ortzaikako sanmartinak

**Festetako bigarren asteburua dute Ortzaikan eta ondo pasatzeko gogo handia oraindik ere.**

Sekulako festa sortu zen azaroaren 10eko bertso afarian. Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi ederki aritu ziren gai librean. Gerora, baina, Errikotxia taldeko lagunak batu zitzaizkien Unai Manterola gai jartzaila. Apaiz gaztea lehen puntua jartzen aritu zen, ausart eta zirikatzaile, han ziren 70 lagunengozamenerako. Herri kirolen erakustaldiak ikusmina sortu zuen igandean. Kirolariek ez zuten hutsik egin eta ikuskitun paregabea eskaini zuten. Bukaerako sariak harri jasozen aritutako Itxaso Legorbururi eta Idoia Etxeberriari eskaini zizkieten.

## ASTEBURU HONETAN

Gaur gauean Ortzaikan agertzen direnek nahi adina dantza egiteko aukera izango dute Izotz taldearekin. Larunbatean, berriz, oilasko biltzaileak baserriz baserri ibiliko dira goizean. Arratsaldean,



Orain arteko lokalean beharrean, aparkalekuan egin dituzte dantzaldiak. KARKARA

16:30ean, haur jolasak izango dira Txurmuskik antolatuta eta, ondoren, txokolatetako bera banatuko zaie txikiei. 22:00etan bertso saioa izango da eta Etxeberriak, Loidisaletxek, Unai Agirrek eta Iker Zubeldiak hartuko dute par-

te bertan. Ondoren, Tapia eta Leturiaren trikiti doinuek hartuko dute auzoa.

Igandean, sanmartinetako VIII. Ikurrina jokatuko da erriean eta, ondoren, bailarakoen bazkariarekin bukatuko dituzte aurtengo jaiak.

## LABUR

### HEZKUNTZA Tonbola

Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek elkartasun tonbola egitekotan dira aurtengo Gabonetan. Hori dela eta, dendetara joko dute datozen egunetan, zozketarako produktuak lortzeko. Iaz egin zen bezala, irabazien erdia ikasbidaia ordaintzeko erabiliko dute eta beste erdia, Ruandara bidaliko dute, hango umeei laguntzeko.

## NATURA

### Hazi banaketa

Azaroaren 10ean, zuhaitz hazien banaketa egin zuten Herrio taldekoek plazan. Ekimenak harrera ona izan zuen, beste behin. 4. aldia da aurtengoa, Euskal Herrian ohikoak diren espezieen haziak doan banatzeari ekin ziotenetik.

## KOMUNIKABIDEAK

### Hitza berritua

Hitza egunkaria erabat berritua ageri zaigu azaroaren 1etik. Paperezko edizioak eta webguneak, azala ezezik, mamia ere aldatu dute eta partehartzeari sustatu nahi dute.

**jaletxea**  
logelak  
**gazteategi**  
Elkano auzoa  
943 13 16 06

**ERROTA**  
- Eztei ospakizunak  
- Banketeak  
- Karta zabala  
- Eguneko menua (lanegunetarako)  
- Oheak  
Tfnoa: 943 83 54

**AHOKULARITZA**  
Fiscal, laborala, kontablea  
**Eugenio Garmendia**  
ASEGURU ARTEKARIA  
IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Aita Lorbundi 33. bahesa - ORIO  
Autobus parada ondoan

**RAMIRO**  
argazkiak  
www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com  
610 69 76 68  
943 83 10 48

**Gabon**  
TABERNA  
Plater, korbata, pantxoak  
Tfnoa: 943 83 06 09



Orioko bertako herritar gutxi izan ziren Orioko II. Krosean.

KARKARA

63 ORIOTAR IZAN ZIREN BEHOBIA-DONOSTIAN, 425 KORRIKALARI ORIOKO KROSEAN

## Maila ona erakutsi du Zianik azken bi probatan

**Azaroaren lehenengo asteburuetan lasterketa garrantzitsuak izan dira: 3an izan zen Orioko II. Krosa, eta 11n Behobia-Donostia.**

63 lasterkari oriotar irten ziren pasa den igandean Behobiatik Donostiara bidean, iaz baino 4 gutxiago. Eguraldi aparta eta ikusle ugari lagun zituztela egin zituzten 20 kilometro inguru.

Kamel Zianik, Txema Martinezen baimenarekin, las-

terketako buru zenbait kilometro egin arren, azkenean, bigarren gurutzatu zuen Bulebarko helmuga, kronometroa 1:01:57an geratuz, Martinezengandik 9 segundora. Atzetik, 17. sailkatu zen Hossain Kaanache izan zen 2. oriotarra.

Helmugan 1. go Orioko emakumezkoa, berriz, Aina-ra Etxeberria izan zen, 01:32:40ko denborarekin.

Joxean Iglesiasek, berriz, 1:04:15ean amaitu zuen lasterketa, 10. postua lortuz.

### ORIOKO II. KROSA

Rakel Llamas eta Kamel Ziani izan ziren azaroaren 3an jokatuak Orioko II. Kroseko txapeldunak.

Nerea Amilibia eta Hossain Kaanache, berriz, podiumaren atarian geratu ziren, laugarren sailkatu baitziren, emakumezkoetan eta gizonezkoetan, hurrenez hurren.

Antolatzaileek 700 dortsal prestatu zituzten arren, 425 korrikalari irten ziren lasterketan, iaz baino 40 partaide gutxiago.

### LABUR

#### ARRAUNA

### Estropada Ortzaitan

Azaroaren 18an jokatu da Oria ibaian San Martin jaietako VIII. Ikurrina. 12:00etan hasiko da estropada Oliden jatetxearen parean. Aurtengoan 6 trainerila izango dira lehian.

#### PLAIEROAK

### Hasiera pattala

Xixarioko neskek partida galduz hasi zuten denboraldia, urriaren 30ean. Talai-berri izan zuen aurkari eta 0-3 irabazi zieten oriotarrei. Gauzak horrela, 11. da herriko taldea.

Datorren partida hilaren 17an izango dute Garaban-Antoniano-Oteiza taldearen kontra. Zarauzko hondartzan izango da lehia, 15:00etan.

#### ZIKLOKROSA

### Orioko Udala Saria

64 txirrindulari elkartu ziren Orioko XXIII. ziklo-krosean, azaroaren 11n. Txurruka inguruan jokatu zen Aldapa eta Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoak antolatutako proba. Peio Goikoetxea izan zen irabazle kadeteetan, Asier Ugalde izan zen 2. eta Andoni Agirre 3.

Junior kategorian, Mikel Arranzek lortu zuen txapela, Dabid Gomez izan zen 2. eta Aitor Azkueta 3.





JOSU ATORRASAGASTI | ESKUBALOIKO JOKALARIA

# “Selekzioaren gonbita jasotzean, sorpresa hartu nuen”

Bi urteko hutsunearen ondoren, Gazteen Euskadiko Eskubaloi Selekzioarekin jokatzeko deia jaso du berriz Josu Atorrasagasti oriotarrak.

**Zer moduzko esperientzia izaten ari da selekzioarena?**

Oraingoaz zazpi bat egun besterik ez ditut egin, baina, hala ere, gustura nago hemen izate hutsarekin, sorpresa galanta hartu bainuen selekzioaren gonbita jasotzean.

**Aurre-denboraldiari begira, zer nolako prestakuntza egingen ari zarete?**

Hilaren hasieran, hiru egun egin genituen Txurru-kako aterpetxean. Bertan, Euskal Herriko 20 bat jokalaria bilduginen. Entrenamendu saioez gain, gure artean partidak jokatu genituen, entrenatzaileak bakoitzaren jokoa ikus zezan eta geronek taldekideekin jokatzeko ikas genezan.

Urrian, berriz, Zarautzen beste egonaldi bat egingenuen eta hemendik aurre-



Hilaren hasieran herrian izan dira selekzioko mutilak eta Josu tartean. KARKARA

ra, laster, Madrilen txapelketa batean hartuko dugu parte.

Orain, 20 lagun gaude eta,

horietatik 16k Espainiako Txapelketa jokatu dute. Urte hasieran izango da hori, Errege egunaren bueltan.

**Selekziara joateak poza ematen du, jendeak zure lana ikusi eta baloratzen duela esan nahi baitu**

**16 horietako bat izateko esperantzarik ba al duzu?**

Nire posturako hiru lagun gaude, tartean postua zurtuta duen Espainiako selekzioan aritzen den Irungo jokalaria bat. Bigarrenak ere nik baino esperientzia gehiago du, eta oso zaila daukat, egia esan. Hala ere, hilaren bukaera aldeira esango didate beraiekin jarraituko dudala ez.

Selekziara joateak poza ematen du, jendeak zure lana ikusi eta baloratzen duela esan nahi baitu, aurrez egindako lanak emaitzak eman dituela, alegia. Gainera, asko ikasten da beste jokalariekin aritzean.

OBRA PROIEKTUA  
 ETNE DEUTIAK ERAMITZEKO  
 ZAHARRERANTZAKO KANPOTIK  
 ETA BARNUTIK  
 HERRIANTZAKO PROIEKTUAK  
 OBRA ZUZELAGARITZA  
 INDIENAN

**IMANOL AGUIRRE MANTEROLA**  
 ARKITEKTOA

MOBILA: 636-957 480  
 ENDA 100000000

**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**HERRI IKASTOLA**  
 Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
 TEL. 943 83 47 04  
 FAX: 943 13 09 38

**A&E**  
 The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl 8 Orio

Tel. 943 00 42 44  
 943 83 51 91

JOSU LARRARTE | EDITORIAL BATEKO ERREPRESENTATEA

# “Ez dut uste ederrena naizelako irabazi dudanik”

**Mister Gipuzkoa lehiaketa irabazi berria du pilotari bezala ezaguna egin zitzaigun Josuk. Gozatu duen esperientzia berriaz aritu gara.**

## Nolatan sartu zinen Mister Gipuzkoa lehiaketan?

Beti gustatu zait Miss eta Misteren lehiak ikustea eta beti izan dut probatzeko gogo. Lehengo urtean aurkeztu nahi nuen baina lesioa izan nuen pilotan eta eskaio-larekin nengo. Aurten, ondo egonda ere, dudan nengo, baina gurasoek animatu ninduten. Helburua izan da ondo pasatzea eta jendea ezagutzeta, gauza berri bat ikastea eta, zortea izanez gero, irabaztea. Sekulan ez naiz mundu horretan ibili, baina egia da, beti gustatu zait nire irudia zaintzea eta kirola egitea.

## Lehiaketatik pasa ondoren, zer iritzi diozu?

Gipuzkoako lehia txikia izaten da, baina jende dezentean joan zen Urbilera ikustera, telebistan ere eman zuten, baina politena da Espainiako lehiara joateko aukera ematen duela. Horrelakoetan politenak ez du beti irabazten eta lehi honetan ederrak bazuuden, baina zortea behar da. Ez dut uste ederrena naizelako irabazi dudanik. Lasai aterantz nintzen, entrebistan ahalik eta naturalen erantzun nuen; gero, paseak egin genituen bainujantziarekin eta gaueko trajearekin, eta egin nuen kalean ibiliko banintz bezala. Aurretik gehiegi pentsatzen baduzu, igual nerbioso jartzen zara, baina ni urdurijarri nintzen bakarrik irabazleak izendatu zituztenean!

Bestalde, aurten oso harreman ona sortu da lehiakideen artean, ondo pasa dugu



Dagoeneko ohituta dago Josu kameraren aurrean egotera

KARKARA

**Lasai aterantz nintzen eta naturalena egin nuen, kalean ibiliko banintz bezala.**

denok, bai 10 neskek, bai 10 mutilak, gero afaltzera joan gara elkarrekin, parranda egin... oso jatorrak denak.

## Bizitza aldatu al zaizu?

Bizitza jendeak pentsatzen duena baino gutxiago aldatzen da. Lana utzi dut egun batzuetarako konpromisoak ditudalako telebistarekin, irratiekin, prentsarekin... igual pixka bat ezagunagoa naiz jendartean.

**Gustatuko litzaidake pasarelako edota argazkietako modeloa izatea**

Casting-ean esan ziguten konpromiso piska bat hartu behar genuela komunikabideekin hitz egiteko eta. Baina ez dut sentitu derrigortuta nagoela. Gainontzean, normal. Jendeak pentsatzen du hortik zer edo zer etor litekeela, baina Mister izateak eta modeloa izateak ez dauka zerikusirik eta publizitateko munduan sartzea oso zaila da. Mister Gipuzkoa irabazteagatik *Book* profesional bana egingo digute

gure irudiekin eta, nahi izanez gero, horrekin joan gaitzke Bartzelonara edo, lana bilatzera. Eta Donostiako gimnasio batean entrenamendu pertsonalizatua eskaini digute, eta baita pelukeria urte osorako ere, biak doan.

Gero, hilabete bat hartuko dut Mister Espainia lehiaketan parte hartzeko, baina autonomoa naiz eta pentsatzen dut, ondoren, bizitza normalera bueltatuko naizela.

## Hurrengo pausoak?

Otsaila, martxoan hilabete bat emango dugu konzentratuta Marina d'Or oporretako hirian, Alicanten, finala prestatzen. Bidaia abioiez egingo dugu Missak eta biok, eta agentziako bi ordezkariak. Esan digute nahiko kontrolatuta egongo garela, beti alboan bi mutil edukita, zeren oporrak ez dira, nahiz eta nik hala sentitu. Hotela ona izango da, gimnasio ederra izango du, eta ondo pasako dugu; jende berria ezagutuko dugu, gauzak ikasi... Gero galan disfrutatuko dugu.

## Irabazteko ilusioz, prestaketa lanik egingo duzu?

Janaria dela edo kirola dela, beti zaindu izan naiz asko; gustatzen zait forman egotea. Ilea eta azala ere zaintzen ditut, bastante. Aitortu behar dut, gainera, asko gustatuko litzaidakeela modeloa izatea. Pasarelakoa edota argazkietakoa, berdina dio, baina zaila da eta horretarako kanpora joan behar duzu. Eta Mister izateak ez dizkizu ate horiek irekitzen, ez dauka ezer ikusirik. Mister Espainia irabaziz gero, Misterraketa Missak urtea nahikoa beteta izaten dute, lan askorekin. Baina hortik ezinezkoa da bizitzea.

KALTE HANDIA EGIN LEZAKE GAITZAK, ZABALDU DELA KONFIRMATUZ GERO

# Mingain urdinagatik kezkatuta Aiako baserrietan

**Mingain urdinaren gaitza Aian azaldu dela azaldu da komunikabideetan. Horren ondorioak atzematen ari dira baserritarrak.**

Urrian, Oiartzunen azaldu eta gutxira, Aian ere mingain urdin aztarnak atzeman direla entzun da komunikabideetan. Xabier Kaminosek, ordea, esan digu albaiteoek ez dutela horren berririk jaso Diputazioaren eskutik, eta, akaso, laborategi baten filtrazioa izan litekeela.

Aste honetan hasi dira Gipuzkoako 162.000 ardi txertatzen; 15 albaiteo arituko dira 40 egunean, eguneko 600 bat buru artatzen. Lan handiazango dutela kontatu digu beterinarioak: *Ardientzat izango da oraingoan, gaitzak askozaz ere eragin handiagoa izaten baitu haiengan: aho barruko inflamazioa izaten dute eta zirkulazioa oztapatzen dienez, mingaina urdin jartzen zaie. Ezin dute jan eta %50 edo hiltzen dira.* Behiek sintoma arinagoak izaten dituzte, eta, txertatzekotan, datorren urtean egingo zaie.

## ONDORIOAK

Abereak dituztenak kezkatuta daude, gaitza duten animalia gutxi azaldu arren, baserritarren ekonomian eragin handia izan baitezake. Bate-tik, gaixotasunak berak eragindako galerak daude: animaliak hil, abortuak, tratamenduen gastuak... edota



Ardiak dituzten guztiak kezkatuta ditu mingain urdin gaitzak.

KARKARA

## Baserritarren ekonomian eragin handia izan dezake

ferietara eraman ezina. Bestetik, kontsumoaren berehalako beherakada. Landa Ingu-ruko Garapeneko sailak garbi esan du kontsumorako arriskurik ez dagoela, baina baserritarren kezka azaldu digu Jabier Manterolak: *Jendea segituan beldurtzen da, eta prezioa dagoeneko 5.20 euro-*

*tik 4.20ra jaitsi da. Gainera, txertoa garai txarrean jarri beharko zaie, eta trastornoa eragin diezaiekerditzeardauden ardiei.*

Kaminosen arabera notizia da gaitza azaldu den aurreneko aldiz delako, baina notizia ez balitz, hobe: *Beste edozein gaitzarekin bezala ikasi beharko dugu bizitzen eta artzaintzanez du inportantzia handirik edukiko. Itxuraz, oso lokalizatuta dago eta kasu gutxi daude. Hala ere neurriak hartu behar dira.*

## LABUR

### Fotoak ikusgai

Argazki lehiaketako fotoak ikusgai daude kultur etxean azaroa bukaera bitartean, eta jendearen iritzia hartuko da kontuan 2008ko egutegia egiteko. Irabazle orokorra aukeratzeko, berriz, epaimahaiak aukeztuko du epe berean.

### Tasen igoerak

Zerga eta tasa gehienak %2,7 igoko dira 2008an pki-ren arabera. Ura, arazketa eta finantziazio plana %5,4 eta zaborrak %20 igoko dira.

### Behobia-Donostia

Behobia-Donostia lasterketan honako hauek dira aiarrek lortutako denborak: J. Arizaga 1:41:33; M. Azkue 1:31:01; X. Azkue 1.31.36; I. Carton 2.08.17; J. Gomez 1.37.55; L. Iturain 1.18.24; I. Izeta 1.28.59; X. Lizaso 1.43.52; H. Olaizola 2.00.20 eta A. Zuloaga 1.45.45.

### Arau berriak

Hiri Antolaketarako Arau berrietan, 262 etxebizitza eraikiko dira Aian datozen urteetan.

Industrialde berriak Erreberatxo, Arrazubi Erribera eta Moyben-Urgainen egingo dira.

Herrian parkea eta pasealekua, beste parke bat Andatzen eta Santion auzokoeko erabiltzeko leku bat ere aurreikusi dituzte.

## KARKARAK langilea behar du Aiako erredakzioan aritzeko

Karkarak langile bat hartu nahi du, aldizkariaren Aiako lan taldean aritzeko. Interesa baduzu, aldizkariaren lokalera jo ezazu, lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta eskaintzen diren ordainsariak eta gainontzekoak ezagutzeko. Telefonoz ere hots egin dezakezu: 943 83 15 27.

## AIAKO LEIHOA

# Telefonica

Ia Guinesen sartzeko zorian gaude aiarrok, lapurreta ber-bera, toki bere-berean, lapurtzio ber-berak, ez dakit zenbat aldiz kableak eraman dituztelako. Ertzaintzak kulpao men. Baina, aurrez kobratu, zerbitzua berreskuratzeko ahalegin kaxkarra egin —hutsaren hurrengo ezean—, bere burua ezkutatu eta, ia seguru, kalte ordainak gauzatzera koan zero ordainduko duena Telefonica santua da. Jendearengatik arduratuta omen daude. Nikez dut sinesen. Gauza jakina zera da, 2007ko 1. seihilekoan 3.830 milioi euroko irabazi garbiak jaso dituela Telefonikak, 2006an baino % 66,40 gehiago. Kopuru hori pezetatan zenbat den kalkulatzeko erantsi zeroak eta zeru-ertz bate-tik besterainoko zenbaki luzea

sortuko zaizu. Milisegundo-ero euroak eta euroak poltsikoratzen ari dira etenik gabe. ADSLan esaterako Europako tarifarik altuena daukagu hemen. Monopolioa, bada-kizu.

Lanposturik ez sortzearen ez daukate bulego bat, ez hemen ez han, bezeroari era pertsonalizatu batean harre-ara egiteko. Hala ere 9.000 biz-

tanle baino gutxiagoko herrixka eta landetan inbertsioa egi-teak errentagarritasunik eza omen dakar. Beraz, *guk arrazoirik ez degu gutxi geraldako!* Gauzak horrela, galdera derri-gorrezkoa da: makroemaitzak dituzten makroenpresen azpiegituren zainketa, Telefonicaren kabledia kasu honetan, euskal herritarren aurre-kontuetatik atera behar da?

Ertzaintzak herritarrak babestu behar ditu edo irabaziak exekutibo eta akziodunen artean banatzen dituzten enpresen aingeru goardako izan?

Dagoeneko atxilotu dituzte hamaika atzerritar lapurretekin zerikusia dutenak. Hamabi izan zitezkeen. Agian, Telefonicaren subkontratakoak izan daitezke, lansari kaxkarrekin bizitzerik ez eta, soldata osatzeko, gauez lanean aritu behar dutenak. Jakin ezazu!

Buka dezadan, lur bedein-katu hontatik gu baino lehenago pasatakoek esandakoarekin: *Lapur txikiak kastigatzeko nun-nahi badago kartzela; haundiak hor ikusten dira paseatzen dabiltzala.*

IXABEL UNSAIN

**Lanposturik ez sortzearen, ez daukate bulegorik bezeroari era pertsonalizatuan harrera egiteko**

**Telefonicaren kabledia, kasu honetan, euskal herritarren aurrekontuetatik atera behar da?**

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Kurpidea auzokoen afaria

Iazko arrakasta ikusita, Kurpidea auzoan jaiotako gazteek afaria egin zuten urriko azken larunbatean. Goian ezkerretik hasita: Eba Lopetegi, Onintza Arrizabalaga, Nerea Arrizabalaga, Leire Lopetegi, Iera Ondarra, Kepa Vilches, Elene Ondarra, Iñaki Lizaso, Gaizka Arrizabalaga, Antxon Arrizabalaga, Pepe Odriozola eta Iker Arrizabalaga. Behean: Maria Vilches, Xabier Lizaso, Jose Miguel Odriozola, Maider Lizaso, Amaia Lizaso, Rafa Lopetegi, Ekaitz Arrizabalaga, Jesus M. Orbegozo eta Iñigo Lopetegi.

*Herri kirolak talde berria du Orion. Hilabete inguru da astean bitan, iluntze aldera, elkartzen direla. Lizargateko bi anaia, Roxendo eta Jose Inazio eta Lusarbeko Pello dituzte prestatzaile eta aholkulari. Ez dira bakarrak, ordea, elkarri lagunduz aritzen baitira guztiak. Saioetako batean izan gara, adi-adi begira, solasean. Begira kontatu dizkigutenak.*

PATXI URANGA

**N**ola bururatu zitzaizuen herri kirolerako taldea sortzea?

Festetako lehen bileran sortu zen guztia. Herri kirolak egitea proposatu genuen, baina herritarrek parte hartuko zuten probak antolatzea. Hori bai, herri kirolari burlarik egin gabe eta gauzak, txukun, merezi duen bezala egin ez. Askotan, gertatu izan da zenbait tokitan, eguna iritsi arte ezer egin ez, eta momentu heldutakoan jendeak batera trebatu gabe parte hartu nahi izatea, edozein moduz bada ere. Lokotxbiltzearekin, adibidez, ez du axola ez delako prestakuntzarik behar, baina besteekin ezberdina da zeharo. Gauzak halamoduz egite hori itsusia da, eta ez genuen halakorik nahi, herri kirolak hori baino errespetu handiago merezi baitu.



KARKARA

PELLO SAIZAR LUSARBE | HERRI KIROLLEN TALDEKO PRESTATZAILEA

“Gai garela erakutsi eta jendeak goza dezan beste asmorik ez dugu”

**Jende asko elkartzen zarete?**

Deialdia egin eta dozena lagun inguru etorri zen. Ahoz aho zabaldu ahala, gero eta jende gehiago etorri da, zerbait egiteko gogoz, baina oraindik ez dago kopuru jakin bat: herenegun 15, gaur 20...

Denetarik dago gure artean: batzuek trontzan aritzeko gogo gehiago daukate beste edozertan baino, beste batzuek, ordea, harrijasotzen, txingatan, zenbaitek denetan... Denek ahal den gehienean parte hartzea da helburua. Ez diogu inori atea itxiko indar faltaren edo abilitade gutxiaren aitzakia jarrita.

**Nola egin duzue jendeari erakusteko?**

Beldurrik handiena harrijasotzearekin eta trontzarekin genuen. Harria altxatzeko indarraz gain, teknika behar-beharrezkoa da. Eta trontzak ere badu zailtasuna, nekea dela, abilitadea... Orduak eman beharra dago.

Hori dela eta, Lizargateko Joseinazio eta Roxendori deitu genien, gure asmoak zein ziren azaldu eta lagunduko gintuzten galdetzeko. Baiezkoa eman ziguten segituan eta, orain, hiruron artean aritzen gara erakusten.

Baina besterik ez: sasoia, indarra eta meritu guztia gazteek dute, guk dakigun apurra erakutsi besterik ez dugu egiten.

**Mutilak asko, zenbat dira neskak?**

Ez dira gehiegi; fijo samar, bi dabilta. Eta ikustekoa da denean zeinen ederki moldatzen diren. Zer esanik ez harria jasotzen, nolako sasoia!

**Ortzaikan egin zenuten lehen erakustaldia.**

Halaxe da, bai. Ortzaikako festa batzordetik sanmartinetan elkarrekin aritzeko proposamena egin ziguten eta baiezkoa eman genuen, gustura asko. Ikastolak, bestalde, pergolan entrenatzeko baimena eman zigun eta han ari gara, astean pare bat saio eginaz. Talde bakarra gara, azkenean.

**Materiala lortzeko nola moldatu zarete?**

Aginagako elkarteak utzi dizkigu batzuk, Muniotako Isidro Arrutik, ekimenaren berri izan zuenean, Aginagan zeukaten guztia eskaini zigun; Geronek ere bagenituen zerbait harri eta txinga etxean, eta haiek ere ekarri ditugu; trontzak-eta Ortzaika bailarakoek utzi dizkigute; sokatirarako soka, haurrentzako txingak, gizon-probetarako tresneria eta beste zenbait Ikastolak... batetik eta bestetik ekarritakoarekin moldatu gara.

**Zuen tresnak eskuratzea zaila izango da...**

Dena kostatzen da gaur egun, baina ez da hainbeste behar. Begira, Udalak festetan herri kirolen erakustaldia egiteko zuen aurrekontuarekin moldatzeaz gain, dirua sobratuko litzateke. Enpresa pribatu bati ordaintzen zaionarekin beharrezko tresneria erostez gain, parte-hartzailerekin afaritara joateko moduan ginatete, lasai gainera. Horren harira esan nahi genuke, herri-kirolak egin nahi ditugula, baina herritarrek herritarrentzat eginak. Hori izan da lanean hastearren arrazoietakoa bat.

Bestalde, hau ofiziotzat dutenek gutunak bidaltzen dituzte udaletara, beren proposamenak jakinarazteko. Jatetxe baten menua bezalakoak izan ohi dira aurrekontu horiek: halako harrijasotzailea honako aizkolariarekin hainbeste, bi aizkolari, lau trontzolari eta beste bi harrijasotzaile hainbeste...

Udalean dagoenak erabaki erosoena hartzen du normalean, egokiena iruditzen zaion proposamena onartu eta aurrera; horrela festa programako ordu batzuk beteta eta kezka bat gutxiago izango ditu.

Hotza iruditzen zaigu hori. Hotza eta herri kirolaren kalterako, denborarekin lau profesional besterik ez baitira geratuko honetan.

Izenak berak esaten du, herrian bertan eta herritarrek eginga.

**Ikusmina sortu du sanikolasetako erakustaldiak.**

Hala dirudi, bai. Lehen esan bezala, festak antolatzeke egin zen lehen bileran sortu zen ideia eta festei begira hasi ginen prestaketa lanean. Karelana arituko gara. Gero hitz egingo dugu eta ikusiko

dugu aurrera jarraitzeko gogorik badagoen. Jendeak baiezkoa ematen badu, gu pozik.

Ideiak baditugu buruan, esaten baterako, herri kirolen eskola martxan jartzea. Udalak lokalen bat utziko baligu, horixe egingo genuke: eskola martxan jarri eta nahi duen



KARKARA

guztiari erakutsi. Uste dugu, egokia litzatekeela, zeren, honetan aritu nahi duenak zer egin behar du, nora jo dezake? Materiala gordetze-ko eta bertan aritzeko lokal bat izanda, gazteek beste aukera bat gehiago izango dute kirola egiteko.

#### **Zer eskainiko duzue?**

Sanikolasetan, honetan aritzeko gai garela erakutsi eta jendeak hain gurea den herri kirolaz goza dezan beste asmorik ez dugu. Ez daukagu talderen batekin lehian edo herri bat bestearen aurka aritzearen konturik buruan.

#### NOLA SORTU

**“Festetako lehen bileran sortu zen guztia. Herri kirolak egitea proposatu genuen, baina herritarrek parte hartuko zuten probak antolatzea. Hori bai, herri kirolari burlarik egin gabe eta gauzak, txukun, merezi duen bezala eginez.”**

#### DEIALDIAREN ARRAKASTA

**“Deialdia egin eta dozena lagun inguru etorri zen. Ahoz aho zabaldu ahala, gero eta jende gehiago etorri da, zerbait egiteko gogoz, baina oraindik ez dago kopuru jakin bat.”**

#### HERRI KIROL EN IZAERA

**“Hau ofiziotzat dutenek gutunak bidaltzen dituzte udaletara, beren proposamenak jakinarazteko. Udalean dagoenak erabaki erosoena hartzen du normalean, egokiena iruditzen zaion proposamena onartu eta aurrera; horrela, festa programako ordu batzuk beteta.”**

#### SAN NIKOLASETAN ERAKUSTALDA

**“Sanikolasetan, honetan aritzeko gai garela erakutsi eta jendeak hain gurea den herri kirolarekin gozatzea beste asmorik ez dugu. Ez daukagu talderen batekin lehian edo herri bat bestearen aurka aritzearen konturik buruan.”**

#### AURRERA BEGIRA

**“Ideiak baditugu buruan, esaterako, herri kirolen eskola bat martxan jartzea. Udalak lokalen bat utziko baligu, horixe egingo genuke: eskola martxan jarri eta nahi duen guztiari erakutsi.”**

Aurrerago akaso bai, baina momentuz ikasi egin behar dugu. Gogoia badago, posible da: gazte mordoa daukagu herrian, sekulako indarra eta ilusioa duena, eta gai direnak honetan ere elkartzeko.

Orain bi hilabete ez genuen imajinatu ere egingo

talde bat sortzeko aukera izan zitekeenik ere. Baina gazteek sekulako erantzuna eman dute eta harro sentitzeko moduan gara haiekin. Gaitasuna duen jendea badugu, asko gainera, eta zailtasunak egon arren, aurrera egin beharra dago.

## ADARRETATIK HELDUTA

# Top-Manta

**P**entsatu, planteatu, erabakiak hartu eta baloratu. Ongi, gaizki edo erdipurdi. Akats berberak edo betiko irtenbideak. Errudunak ondokoak, geure burua erruduntzat noizko?

*Ama, gaur kontzertua dago herriko plazan, zer ordutan etor naiteke etxera?* Hori izan ohi zen gaztetxo ginenean beldurra ematen zigun ohiko galdera. Erantzuna, denbora pasa ahala, ez zen, hala ere, asko aldatzen.

Ikastolatik etxerakoan bestelakok izaten ziren. *Aita zortzia atera dut azkeneko matematikako azterketan.* Erantzuna hurrengoa: *Eta Aitorrek zer atera du ba?* Aitorrek seia ateraz gero, zorionak eman eta gutxitan jaso izan dugun muxua opari; eta Aitorrek hamarra ateraz gero, hurrengorako gordeta utziko zuketean keinu preziatua.

Top-mantaren garaian gaude, estalki batek inguratutik, alde batetik bestera gabiltza. Dena kopiatzen dugu, eta erabat konbentzitututa gaude horrela egin behar dela. Iritziak, proiektu berriak... buruhauste ugari ekar ditzakete. Hori ez da, ordea, eroso. Geurea izateak ez dio baliorik ematen. Lorontzitik, lur zati ñimiñorik atera gabe egin izan ditugu lorategiak, bertatik eroritako haziak fruiturik eman-go ez balu bezala.

Planteamentu berriei beldurra diegu, bide berriak eraikitzeke perezak daukagu,



BEÑAT SOLABERRIETA  
TXURRUMUSKI TALDEKO KIDEA

**Planteamentu berriei beldurra diegu, bide berriak eraikitzeke perezak daukagu, gaurko gizartean erabat akomodatuta gaude**

**Plan asko azaldu dira, baina, hala ere, etxetik kanpora begiratzeko ohitura dago oraindik**

gaurko gizartean erabat akomodatuta gaude. Haur txokoa, ludoteka, gaztelekua, gaztetxea... horra hor dauden aukerak. Hori da ezarri diguten helmuga, baina

horretara iristeko bidea ere egin dugu. Hori bai, askatasun osoz, ibilbidea egin edo etxean gelditzea erabaki genezake. Ondokoak kriterio osoz jarritako baldintzetan sar gaitezke, guk irizpide horiek izango ez bagenu bezala.

Laburbilduz, nik ere, mugimenduen inguruan hiru fase desberdin daudela esan nezake, eta planteatutako ideientzat planak egokitzea izan ohi da herri askok emandako erantzuna. Lehen fasea, nahien eta beharren azterketa da; Orion egin dago gazteria diagnosi bat, kasurik egin al zaio ordea? Bigarren fasea planteamentuei dagokiena da; plan desberdinak azaldu dira, baina hala ere etxetik kanpora begiratzeko ohitura dago oraindik: kanpoeder, handik datorrena onena izango denaren esperantzarekin. Hirugarrena, etorriko da, balorazioaren eguna. Dena kanpotik etorritako ez dugu irizteko aukera. Albokoek pentsatu, planteatu eta erabakitako zerbait guk geuk baloratzea bidezkoa al da?

*Ama gizarte zientzian laua atera dut; Kontzertu egunean adostu genuen orduan etorri izan bazina, ikasteko denbora gehiago izango zenuke. Baina lasai, elkarrekin ikasi, eta bion artean gaitutako dugu azterketa.*

Bada garaia erronka berriei aurre egiteko!

## NIRE HONETAN

# Puxtarrien banaketa

**G**auza bat da gabezia bat dagoela aitortzea eta oso bestelakoa, horri irtenbidea ematea. Gazteak kalean daudela guztiok dakigu: aitak, amonak, bizilagunak, mutilzaharrak... baina arazoari adarretatik heldu eta aurre egin diotenak ez dira hainbeste: gazte asanblada, Txurumuski eta Udala; bakoitza bere erara.

Gazte asanbladak Gazte Egun arrakastatsua ospatu berri du. Ez dauka etengabe —eta hori azpimarratu nahi dut, etengabe— zertarako gai den erakutsen jardun beharrik. Baldintza beretan jarriko nuke nik hori dioena. Urtean zehar eta aurretik egindako lanek ondo asko erakutsi dute zer ari den irakiten, ez daukate besterik demostratu beharrik. Bost puxtarri!

Txurumuskik herritarrek kudeatutako gaztelekua nahi duela argi utzi du. Beste bost puxtarri! Herrikoa, herritarrekin, herriarentzako.

Udalaren ordezkartzak ez du berdin pentsatzen, ordea. Zezenaren aurrean jarri den toreroa izan Udala: animalia deitzeko kapa astindu eta, datorrenean, barreran, atzean gorde.

Nik behintzat argi daukat 10 puxtarriak norentzako diren aurtien; datorren urtean berriz banatuko ditut.

LORE BERSALUZE

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta errazimintak  
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

**ITZIAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo  
Asegurari-ageritza  
ASEGIRUAK  
C C I  
CARAÑA, ZILVETI, LACORT Y CIA. SA  
Abeslari, 4-2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44



## MOILA BAZTERRETIK

# Guk dugu giltza II (jarraipena)



JON AGIRRESAROBÉ TORROTZO

Ainara, bazara bai monotematika samarra. Baina ederrak gu, bertozaleak, eztabaida horretan sartzeko: txapelketa hasi denetik udazkeneko katarroa baino pelmagoak gaudenak. Ezin hizketaldiak beste eze-

rekin bete. Baina, zeini egin diogu kalte? Hobe al da orojakilea izatea? Bietatik izatea litzakete txarrena: denetik jakin eta azalpenetan luzatzea.

Uda amaitu berritan, Goiko Kaleko festak antolatzen hasiak zaretela idatziko duzu osterara ere. Laster tokatzen da, hurrengoan agian, ibaiaren egoeraz hitz egingo digu Garbiñek. Eta auskalo zerekin harrizten gaituen Jokinek? Originaltasuna ordaindu egin behar da eta hori ongi dakite KARKARAN. Laster bildu behar duzu Garbiñe, Ainara eta hirurok, zutabegileen konbenioa berritzeko. Igoera lortzen badugu, oilaskoa beharrean arkumea afalduko dugu datorren urteko Goiko Kaleko festetan. Gazteak bai, baina ez gara tontoak... Batek baino

gehiagok galdera egin dit, ez zutela Jokinen gutuna uler-tu eta KARKARAK *desgrazien zutabeanean atera zuela*, Kanean gelditu ninduenak *dixit*. Nik ez dakit ezer; monotematikoa bai, baina orojakilea ez. Bueno... pixka bat, agian bai. Ainara, zure azken artikulua-ren tituluak tentatu nau orain-goan. Azken egunetan ez dabil beste konturik herrian. Bate-ren bat *Zorionak* ematen entzuten baduzue, ez okurritu belarritik tiraka hastea: etxea tokatu zaio. *Guk dugu giltza!* idatzi zenuen aurreko alean. Asko gelditu dira giltzarik gabe. Esaldia galdera ikurrarekin amaitu izan baze-nu behintzat!

Zorteko dira zenbait adis-kide. Animo zorterik izan ez dutenei. Ez dakit aukera gehiago izango den ala ez,

**Guk dugu giltza!  
idatzi zenuen  
aurreko alean.  
Asko gelditu dira  
giltzarik gabe**

hurrengoan ni ere han izan-go naiz, gutxieneko irabazietara iristen banaiz behintzat. Bitartean Goiko Kanean errentan edo gurasoen etxean bizitzen jarraitu behar, edo gurasoen izenean jarritako etxean.

Bukatzeo. Karkara.com-en sartu naiz. Sinplea eta elegantea. Hori bai, izen bat asmatu eta edozer gauza esateko aukera jarri dute. Izen-abizenik gabeko iritziak, protekzioko etxeak bezala dira, merkeak. Bai, behintzat, errespetua galtzen denean.

**SALGAI**  
Gurpildun aukerik elektrikoa + Ranzak  
DRAGON INVACARE (Berrita)  
3000 €  
Tel: 943 83 27 63

**BORDATXO**  
Plata gas-gasak  
Tel: 943 13 30 14

**LEIHOLAN**  
Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialka Agote, 5 20740 Ziztza	Eskualdeak San Francisco, 1, 20000 Zarautz Alta Leizoradi, 23, 20810 Orre Tel: 943 83 40 24
---	--

FISIOTERAPIA - Gaitortze Arislegi eta Natalia Wierzbien  
NUTRIZIONISTA - Gabiete Alzaiti

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**bodegas ERRASTI, S. L.**

Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain  
Gailur eta Arandegi,  
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskamet.net

**TAILER MEKANIKOAK**  
**MANTEROLA S/L**  
TYORROKAK - BALBUAK

Santiago eztoa - 18 postakubera  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**  
**AENOR**  
E-NGE  
IBO 8002  
Esferako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

*Lizaso*  
*Alzariak*

Lizaso Gudar, 46 | Euzko: 943 83 03 86  
Alta Leizoradi | Euzko: 943 83 40 24

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudar, 30-1. ezk  
telefon: 943 83 08 12

## KRITIKA



Mapiletik barra muturrera jaitsi, eta oriotarren istoria ulertzeko osagarri ezinbestekoa da liburua.

KARKARA

## Aginagako arrauna, liburuan

2001ean Orioko arraunaren historia biltzen duen *Orioko Patroiak* liburua kaleratu zuenetik, ez zuen Iñaki Iturainek estropadei buruzko besterik argitaratu. Aurten, Aginagak bere historian irabazi dituen bi Kontxako Banderetatik lehengoa, 1957koa, lortu zueneko 50. urteurrena betetzen da, eta efemeridea lorpenari dagokion neurri oso patzeko hainbat ekitaldi antolatuta dira Aginagan. Bestek beste, Aginagako arrauna-

ren historia liburu batean jasotzea erabaki dute agiñarrek. Emaizta *Erriotik Itsasora* da, Aginagako arraunaren historia eta arraunlarien istorioak batzen dituen 100 orrialde pasatxotako alea. Aginagak eta agiñarrek jokatutuzten estropaden xehetasunak xuxen-xuxen jasotzeaz gain, arraunaren inguruan anguleroen herriari sortutako kontu, xelebrekia eta pasarteak bildu ditu Iturainek. Baita agiñarrek eta oriotarrek arraunaren aitz-

kian urtetan mantendu duten erlazioa ere. Balio historiko handiko argazki lagundua, maketazio txukunarekin eta garaian garaiko giroaren berri ematen duten bertso sortez osatua, *Erriotik itsasora* Aginagako arraunaren historia osoa jasotzen duen dokumentu bakarra baino gehiago da, Mapiletik barra muturrera errioz jaitsi, eta oriotarrena ulertzeko ere osagarri ezinbestekoa baita.

IBON GASTAÑAZPI

## IKASLEAK IDAZLE



JOSU MAKAZAGA |

DBH 4. MAILA

## Karela

**K**arela kiroldegian, prezio igoera nabarmena izan da azken urteetan, nahiz eta zerbitzuak ez diren aldatu. 16 urtetik beherakoek ez dugu baimenik saunan, jakuzian, hidromasajea eta gimnasioan sartzeko. Hau da, igerilekuan eta kantxan bakarrik sar gaitzke. Bi gune horiek erabili ahal izateagatik, 3,52 euro ordaindu behar izaten dute ez-bazkideek. Horregatik egin nintzen bazkide. Kantxako argia ordaindu egin behar izaten da. Neguan batez ere, eguraldi txarragatik kiroldegira joaten garenean jolasteko aterpe baten bila, oso goiz iluntzen du, eta ez da ezertxo ere ikusten. Jolastu ezin denez, argia ordaintzea beste irtenbiderik ez dago; eta argia ordubetez pizturik mantentzeko, 10 euro ordaindu behar da bazkide izan edo ez. Honen bidez, Karela kiroldegian zer hobetu daitekeen adierazi nahi dut.

**LURDES**  
ARRAUNDEGI  
  
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**Allianz**   
**Marigre Zaldúa**  
aseguru agentea  
Bil Ondo, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-maila: zaldua.delacruz.paz@allianz.es

ardoak, urdaikiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino eramaten ditugu**

**KARKARA**

**943 83 09 84**  **aita Iertxundi, 36**  
**ORIO**

**HANDIK ETA HEMENDIK**



“Hezkuntza sistemari egindako kritika zen Ruido de Rabia. Txikitatik hartzen gaituzte, eta, parametro batzuen arabera, erakutsi beharrean, deuseztatu egiten gaituzte, gizartera egokitu gaitezen.”

**SANTI MANTEROLA**

Musikaria  
Berria  
2007/11/07

“Tristeza da ikustea Udala dela herritarren interesen alde egiten duen bakarra.”

**JON REDONDO**

Alkatea  
Urola Kostako Hitza  
2007/11/14

**OSPAKIZUNA**



**M. Jesus eta Rafael**

1957ko urriaren 24an ezkondu ziren, eta bizitza erdia eta gehiago elkarrekin eman dutela ospatzeko, familiakoekin meza nagusira joan ziren urriaren 28an, aurrena, eta elizan bertan ziren askok aprobetxatu zuen senar-emazteak zoriontzeko. Katxiña jatexera joan ziren gero, eta primerako banketea egin. Postrea musikarekin etorri zen eta kantuan bukatu zuten festa kitarra, kitarrero eta guzti.

Zorionak bioi gure partez ere.

**ZORIONAK!**



*Poltsak dendaz dendak* kanpaina

Erosketak egiten ditugun bakoitzean, alferrikako zenbat plastiko biltzen dugun esatea ez da kontu erraza izango. Bata edo bestea dela, urtea joan eta urtea etorri, makina bat kilo botako genuen zaborretara honezkero. Zenbait herri eta eskualdetan aspalditik martxan den ekimena abiarazi dute gurean ere: erosleari oihalezko poltsa banatzen zaio, doan, erosketa guztiak horrekin egin ditzan, plastiko pilaketak nolabait ekiditeko. Herritarren erantzuna nolakoa izango den jakitea falta da orain. Zentzuz bagabiltza, arrakasta izango du ekimenak, aspaldi abiarazia behar bazuen ere.

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldekorako zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Karroiak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 46 41  
e-mail: harraspil@harraspil.net

**OLIDEN**  
*harategia*  
**ORIO**  
Eusko Gudari, 2  
Tfnos: 943 83 10 86

ile arazidegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel: 943 13 47 29  
**ORIO**

**LUXARBE**  
*igeltsentza*

- Igeltsentza orokorra, denetarik egiten dugu.
- Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe
- Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

aroztegia  
**MIRANDA**  
Jose M. Lasaola  
farina, ato, leño, askakora...  
besten diren arto: larak,  
eguzi ditxkora

Urdazeta bidex. 1 +655 42 52 70x ZARAUZ

485 zabalduen harategia  
**ARGIDENTAL HORTZ KLINIKA**  
*Jl. Soulier dokorea*

- Oklonjologia
- Periodontia
- Endokontzia
- Implantologia
- Prebentzio
- Errehabilitazio
- Horte osatzea
- Protesiak

Maria Etxebarri 1, Zarautz  
943 15 92 78  
clinicadentalsouler@oninegoia.com

## OROIMENAREN KUTXA



Itsasoaren indar ikaragarriak ez dio bizirik kendu inori, baina uretara eraman zuen plaka itsatsita zuen harria.

KARKARA

## Bertsoa galdu da barran

Orain dela 55 urte, 1952ko apirilean, Orioko barran bost gizon itoziren, *Virgen Carmeli* baporea irauli zenean. Orain 5 urte, 2002an, barra muturrean, 5 gizon haiek eta barran itotako guztiak gogoan, ekitaldi xume bezain hunkigarria egin zen. Han elkartu ginen istripu larri hartatik bizirik ateratarokik, hildakoen familiarak, apaiza, alkatea, Manuel Lasarte bertsolaria eta herritar batzuk. Itsasoaren aurrean, apal eta hunkituta, gizakiok holakoetan egitea daukagun gauza ia bakar eta zentzuzkoena egin genuen, hitzaren bidez momentu latz hura gogora ekarri eta hildakoeekin bat egin. Horretan asko lagundu zigun bertsolari-poe-

ta batek, Fabian Loidi apaiz oriotarrak, barran itotakoei aspaldi egin zien bertso antologikoak. Bertso hura kantatu genuen bertaratutako guztiok, eta bertsoa hantxe gelditu zen, plaka batean, harriari itsatsita, gertatutakoaren erakusgarri, itsasgizonen oroigarri. Nekez egingo zaio bertsolari bati omenaldi hoberik hori baino.

Geroztik bost urte pasa dira, eta, barra horretan, gauza pare bat bai, gutxienez. Batetik, itsasoaren indar ikaragarriak ez dio bizirik kendu inori, baina uretara eraman zuen plaka itsatsita zuen harria. Bestetik, norbaitek berriro jarri du beste plaka bat harriari itsatsita. Baina oraingoan bidean bertsoa galdu

da. Oteizak salatzen zuen bezala, bertako artistengana-ko gehienetan izan ohi dugun sentiberatasun ezak ahaztu egin du bertsoa, eta bide batez bertsolaria.

Nik, gaur, haren gorazarre egin nahi dut, bertsoa txoko honetara ekarri:

Oriotarren kezka minena da barra/ itsasorako duten ur bide bakarra/ ogi bila joateko igaro beharra/ heriotza dutela zelatari zaharra.

Gainera, aldarrikapena egin nahi dut, ozen, oso ozen: jar dezagun hirugarren plaka barra muturrean, baina behar bezala, itsasoaren indarrari eta gizakion oroimen ahulari aurre eginez.

IÑAKI ITURAIN

## JAIOTAKOAK

- Aitana Galan Moreno, Orion, urriaren 23an.
- Hodei Arostegi Aiala, Orion, urriaren 21ean.


## EZKONDUTAKOAK

- Jon Erkizia Salegi eta Aloña Lizeaga Gabirondo, Orion, azaroaren 10ean.
- Heliadora Sanchez Casado eta Asterio Alonso Gutierrez, Orion, azaroaren 3an.

## HILDAKOAK

- Josefina Arruti Amilibia, Orion, azaroaren 7an. 55urte.
- Koro Miralles Arostegi, Orion, azaroaren 6an. 75urte.
- Asentxio Segurola Alkorta, Orion, azaroaren 3an. 73 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
frontal ondoan  
Tfnoa: 943 83 01 89

ARANTXA SATRUSTEGI ETA IMANOL AMANTEGI | LORE-SALTZAILEA ETA LOREZAINA

# “Lorzaintzan beharrezkoa da egindakoa gogoz egitea”

**Duela 3 urte pasatxo ireki zuten Arantxa Satrustegik eta Imanol Amantegik lorelenda. Lore-saltzailea Arantxa eta lorezaina Imanol, lanbideko sekretu txikiez aritu zaizkigu.**

**Nolaz piztu zitzaizuen lore eta landareekin aritzeko arra?**

Imanolek bokazioa hasieratik zuen garbi eta lorezaintzako ikasketak egin zituen.

Niri, berriz, loreak eta eskulanak betidanik gustatu izan zaizkit. Lore-saltzaile izan nahi nuela-eta, Bartzelonara jo nuen han prestatzeko asmoz. Orain, berriz, urtean behin edo, Bilbora joaten naiz ikastaroren bat edo beste jasotzera, gauza berriak ikastera. Aste beteko saioak izaten dira eta jende aditua etortzen da bertara. Iaz, adibidez, lorezaleen artean oso ezagunak diren Tor Gundersen eta Gregor Lersch izan genituen.

Lanbide honetan beharrezkoa da egindakoa gogoz eta gustura egitea, eta hala da gure kasuan.

**Zein da loresaltzailearen lana eta zein lorezainarena?**

Lore saltzailearena, gehienbat, loleen diseinuari begiratzen dion alorra da. Landarea saltzeaz eta konposaketak egiteaz arduratzen da. Azken finean, txoko ezberdinak dekoratzen ditu: ezkontzako eta elizako lore-sortak egiten ditu, adibidez, koloreak konbinatuz, modak jarraituz eta, kasuan kasu, xehetasun desberdinak sortuz.

Lorezaina landareez arduratzen da, lorategiak diseinatu eta mantentzeaz. Alor asko ezagutu behar dira horretarako: landareen eta zuhaitzen funtzionamendua, behar dituzten zainketak... Gaur egun gainera, Euskal Herri-



Arantxa eta Imanol lore eta landareekin lanean aritzen dira.

KARKARA

**Gero eta jende gehiago etortzen da zaintzeko errazak diren landareen bila, ikasten hasteko asmoz**

koak ez ditugun landare asko saltzen dira eta zailduz doa lorezainaren lana.

**Lore eta landare autoktonoak galtzen ari al gara orduan?**

Galtzen ari garenikez nuke esango. Basoetan biodibertsitate handia daukagu, bai-

**Mutilak emakumeak baino gutxiago dira, baina gizonezko horiek interes berezia izaten dute**

na etxeetan jartzeko, tamaina txikiko landareak behar dira. Gure pagoak, gaztainondoak... ez dira gaur egungo lorategietan kabitzen eta horien orde, leku txikietan sartzen diren kanpoko landare berriak jartzen dira.

Loreetan ere, hemengoak

eta betikoak direnak miresten ditugu orain ere. Hortentsiaren kasuan, esaterako, urte batzuetan jendea loreaz aspertu zela zirudien arren, orain berriz salmentek gora egin dute.

**Eta orain zer dago modan, pil-pilean?**

Joera kontuak etengabe aldatzen dira. Bat aipatu beharko banu, azken urteetan orkideak daudela modan esango nuke.

Koloreen aldetik, orokorrean, tonu biziak izaten dute arrakasta. Kontrastea bilatzen da gehienbat.

**Landare eta lore artifizialak zuek moldatzen dituzue?**

Lorea bera erosi egiten dugu, baina hemen konposaketak egiten dira: moztu, itsatsi, hor jarri, handik kendu...

Toki ilunetarako egokiak dira artifizialak, bizia ematen dute eta naturalak, argi faltagatik, ezingo luke hor bizi-raun. Gainera, gazte gehienek denbora gutxi izateaz gain, ez dakite landareari kontu egiten. Hala ere, gero eta jende gehiago etortzen da, zaintzeko errazak diren landareen bila, ikasten hasteko asmoz.

Hemen ez dago Andaluzian bezalako loreak eduki eta zaintzeko ohiturarik —egia esan, han zainketak errazagoak dira— baina, ikasteko gogoia badagoela ikusten da.

**Emakumea da oraindik etxetako lorezaina?**

Mutilak emakumeak baino gutxiago dira, baina dauden gizonezko horiek interes berezia izaten dute. Bonsaiekin, adibidez, gizonezkoak emakumezkoak baino errazago hasten dira lanean.



## Aizperroko eskola zaharra

**A**izperron bazen lehen eskola, auzoko haurrak hartzen zituen eta horrek esan nahi du inguruko baserrietako neska-mutilak zirela han ikasle ibiltzen zirenak eta, horrela, Oriora jaitsita bezain bide luzerik ez zuten egin behar eskolara joateko. Ez zen autorik garai haietan eta bidea oinez edo zaldi gainean egin behar beti.

Hauetxek dituzue irudiko protagonistak,

belauniko jarrita, ezkerretik eskuinera: Luziano Iribar, Pedro Jose San Sebastian, Maite Arruti, Jose Luis San Sebastian eta Jose Iribar.

Erdian zutik, ezkerretik eskuinera: Amaia Iribar, Iñake Irastorza, Maite Eizagirre, Lurdes Eizagirre, Lurdes San Sebastian, M. Jose Eizagirre, Arantxa Irastorza eta Rosa M. Eizagirre. Goran, ezkerretik hasita: Inaxi Etxeberria, M. Pilar Saizar,

Aurora Bengoetxea (irakaslea), Ane Miren Irastorza eta Milagros Makazaga. Argazkia, berriz, Aurora Bengoetxeak argiaratu zuen liburuan agertzen da.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:  
MAITE EIZAGIRRE

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

**Peikeria eta estetikoa mistoa**

- Tintak egonak eta koloreak naturalak
- Bel-hecarako gisak irautokorrak
- Azkara/ eskolatokorrak
- Pedicura
- Depilazioa

**Sexo Niholar, 2. Telf: 943 65 51 70**

**Automóviles ZARAUTZ**

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

Itzulia datorik eta ia lasterkoan

**ZARAUTZ. Tlf. 943 13 13 50**

**Zaragueta Eskola Orio**

telefonoa: 943 69 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**TRAGOXKA PUB**

pubtragoxka@hotmail.com  
Aritzaga, 11 tel. 943 13 22 56

**1953KOEN AFARIA**

■ Azaroaren 17an.  
19:00etan, meza elizan;  
21:00etan, afaria Altxerri  
jartetxean. Prezioa: 45 euro,  
Kutzako kontu honetan  
sartzeko: 2101 0176 99  
0011405057. Informazio  
gehiago hona deituta:  
627 41 78 44 (Xanti).

**IBILALDI GIDATUA**

■ Azaroaren 17an, 09:30ean  
Urdanetako plazan.  
Ibilbidea: Urdaneta, Altzola,  
Altzolaraz, Urdaneta.  
Itzulera: 13:30ean.

**TRASTE ZAHARAK**

■ Orion, altzari eta tresna  
zaharrak jasoko dituzte  
azaroaren 28an. Bezperan  
utzi behar dira zabor  
lekuetan eta Udalean abisua  
eman nolakoak diren  
esateko. Trasteak jasotzera  
etxeraino joatea nahi  
baduzu, deitu 902 54 06 54  
zenbakira.

**FUTBOLA**

■ Azaroaren 17an,  
erregionalean: Amara-Orio;  
jubenilean: Orio-  
Burumendi; kadeteen: Orio-  
Mutriku; infantilean:  
Trintxerpe-Orio.  
■ Azaroaren 24an,  
erregionalean: Soraluze -  
Orio; kadeteen: Luberrri-  
Orio; infantilean: Orio-  
Pasaia.

**ARETO FUTBOLA**

■ Azaroaren 17an 1 mailan:

**Iratxera egun pasa**

Iratxera joateko egun pasa antolatu dute Zaharren Babeslekukoek azaroaren 21erako. 08:30ean autobus geltokitik aterata, 10:30ean iritsiko dira Iratxe hotelerara. Bertan hamaiketako egin eta inguruan bueltatxo bat emateko aukera izango dute bazkatzeko ordua arte. Bazkaldoan, dantzaldia eta bingoa ere izango dira. Botila ardo bana emango zaie denei.

Orioko tabernak-Izkepot;  
2. mailan: Orioko tabernak-  
Denak taberna.

■ Azaroaren 24an, 1.  
mailan: Elorrio-Orio;  
2. mailan: Plastigaur-Orioko  
tabernak.

**FESTETAKO BILERAK**

■ Sanikolasak prestatzeko  
bilera irekiak, asteazkenero,  
kultur etxean. 19:00etan.

**ORTZAIKAKO FESTAK**

■ Azaroak 16, ostirala:  
Dantzaldia Izotz  
taldearekin. 23:00etan.  
■ Azaroak 17, larunbata:  
Oilasko biltzaileen irteera  
goizean; 16:30ean, haur  
jolasak Txurumuski  
taldearen eskutik. Ondoren,  
txokolatada; 22:00etan  
bertso saioa, Etxeberria,  
Loidisaletxe, Unai Agirre eta

Iker Zubeldiarekin.  
Ondoren erromeria izango  
da Tapia eta Leturiarekin.  
■ Azaroak 18, igandea:  
Estropada 12:00etan: san  
Martin jaietako VIII.  
Ikurrina. Ondoren,  
bailarakoen bazkaria festei  
agur esateko, bertsolari eta  
trikitilariak girotuta.

**ZINE FORUMA**

■ Azaroaren 16an, OZK  
taldearen eskutik, *Los  
idiotas* filma. 22:00etan  
kultur etxean.  
■ Azaroaren 30ean, kultur  
etxean, *Glengarry Glen Rose*  
filma. 22:00etan kultur  
etxean.

**MENDI IRTEERA**

■ Azaroaren 18an, Talai  
Mendi elkartearen eskutik,  
Kolitza - Balgerri arteko  
ibilbidea. Irteera: 07:00etan  
autobus geltokitik.

**IPUIN KONTALARIA**

■ Azaroaren 22an, Maite  
Franco ipuin kontalaria  
Orioko kultur etxean.  
18:00etan liburutegian.

**HITZALDIAK**

■ Azaroaren 26an, Orion,  
*Hilzorlan daudenei  
emandako laguntza* hizpide,  
Farfarak antolatuta.  
19:00etan kultur etxean.  
■ Azaroaren 27an, Orion,  
Mendebaldeko *Feng Shui*,  
Micheline Siemsen eta Ami  
Naidesen adituen eskutik.  
19:30ean kultur etxean.

**ITSASOA**

Azaroa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
16	07:39 eta 20:06	01:18 eta 14:06	☾
17	08:47 eta 21:28	02:19 eta 15:14	☾
18	10:11 eta 23:04	03:42 eta 16:36	☾
19	01:34 eta	05:09 eta 17:59	☾
20	00:26 eta 12:49	06:26 eta 19:06	☾
21	01:28 eta 13:50	07:27 eta 19:59	☾
22	02:18 eta 14:42	08:19 eta 20:42	☾
23	03:02 eta 15:28	09:05 eta 21:24	☾
24	03:44 eta 16:11	09:50 eta 22:04	☾
25	04:24 eta 16:53	10:35 eta 22:44	☾
26	05:05 eta 17:34	11:20 eta 23:25	☾
27	05:46 eta 18:15	12:06 eta 00:00	☾
28	06:30 eta 18:58	00:08 eta 12:54	☾
29	07:20 eta 19:46	00:55 eta 13:46	☾
30	08:19 eta 20:48	01:51 eta 14:42	☾

**ZAINZAKO BOTIKAK****AZAROA**

■ 16an, Iriarte.  
■ 17 eta 18an, Olaizola.  
■ 19an, Barrenetxea.  
■ 20an, Azaldegi.  
■ 21ean, Zulaika.  
■ 22an, Iriarte.  
■ 23an, Olaizola.  
■ 24 eta 25ean, Mutiozabal.  
■ 26an, Azaldegi.  
■ 27an, Barrenetxea.  
■ 28an, Iriarte.  
■ 29an, Olaizola.  
■ 30ean, Mutiozabal.

**Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8.  
943 13 31 83 Zarautz

**Barrenetxea:** Gipuzkoa kalea, 17.  
943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.  
943 83 29 70 Zarautz

**Olaizola:** S. Frantzisko kalea, 16.  
943 13 38 14 Zarautz


**Lasa:** Herriko plaza.  
943 83 09 36 Orio

**G.Arriñano:** Zigordia kalea, 17.  
943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea  
943 13 29 83 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41  
943 13 39 94 Zarautz

# Ilargian egonda ere... enteratzeko modua



## Txurrukara doaz Orioko 47 haur

2007/11/13 AUSA

Azaroaren 25ek 25era izango da egonaldi

Gehiago ikus...

## Auto batek su hartu du Orion

2007/11/13 BERTAERA

15:30 inguruan gertatu da, bai-batean, autoa aparketutik zegoela. Eusko Gudariaren kalean

Gehiago ikus...

## Langile batek istripua izan du Santio auzoan

2007/11/13 LAN-ISTRIPUA

Gertakia

2007/11/13

### BLOGAR

#### ORIKO SAE-AN TALDEA

Nahi baldin badugu geroak

uzaiten dituzte

2007/11/13

#### ORIKO SAE-AN TALDEA

Udaberriaren bitartean

kronika

2007/11/13

#### KORO ARRATSE

Orioko E. Neri Kress

2007/11/13

### ZOKION AGURIAK

#### EBOTZ EZAORRE

2007/11/13

Oriokoako Beroa Salburua 15.000 inguru da. Buzoak finkak suak dituzte. Urtasun geroak. Auzoaren erdian suak dituzte. Buzoak finkak suak dituzte. Buzoak finkak suak dituzte. Buzoak finkak suak dituzte.

#### MANEX BARRINETXEA

2007/11/13

### ARGAZKI GALERIA



Argazki galeria

Estal zuzen argazkiak

### AGENDA

#### BUSKA

Darbain erdian erdian

kontzertua

Sukua 2007/11/14

#### ZINEA

'Los Kikos' berri

Sukua 2007/11/13

2007/11/13

#### ZINEA

